

# HARRERA GIDA
# *GUÍA DE BIENVENIDA*

ELGOIBAR
UDALA I AYUNTAMIENTO

# Ongi etorri Elgoibarrera!

Historian zehar izan diren migrazio mugimenduek osatu eta aberastu dute gure herria, eta, gaur egun ere, gure herrira bizitzera etortzen zaretenok gure herria aberasten eta osatzen jarraitzen duzue; ez bakarrik, gure herriaren garapena bultzatzen duzuelako, baita zuen kulturak, hizkuntzak, ohiturek… gure herriarenak aberasten dituztelako.

Gure herria harrera herria da, bereziki, 50eko hamarkadatik hona, garai hartako eskulanaren premiari erantzuteko estatuko beste leku batzuetatik gure herrira etorri ziren pertsonei esker. Urte batzuetan migrazio fluxu horiek nolabait gelditu baziren ere, azken hamarkadetan, ugaritu da gure herrira aukera hobeen bila etortzen diren pertsonak.

Hala ere, gure herria herri migratzailea izan da beste garai batzuetan, eta jakin badakigu ez dela erraza norberaren sorterria utzi eta beste herrialde batean bizitzen jartzea, ugari baitira bizitza zailtzen duten faktoreak.

Horrexegatik, zuoi, etorri berrioi, gure herrian errotzen laguntzeko kaleratu du Elgoibarko Udalak gida hau, zuen herri berrian izango duzuen egoerara egokitzen laguntzeko; izan ere, gaurtik aurrera, zuek ere gure herriko parte zarete, elgoibartar, alegia. Horrexegatik, prozesu horretan laguntzeko sortu dugu esku artean duzuen gida hau, hain zuzen, gure herrira hurbiltzen eta bertan kokatzen laguntzeko.

Bertan izango duzue gure herrira iritsi berriak zaretenontzako oinarrizko informazioa, bereziki, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei eta baliabideei buruzkoa.

Espero dut gida hau baliagarria izatea leku berri batera bizitzera etortzeak hasiera batean dakartzan zalantza, beldur eta zailtasunak gainditzen laguntzeko.

Hasierako une hau aukera bihurtzea nahiko nuke, eta, bidenabar, elkar ezagutzeko prozesu hau harremanak sortzeko, elkar aberasteko eta esperientziak partekatzeko baliatzea.

Bukatzeko, gida hau zuentzat baliagarria izango delakoan, har ezazue nire ongietorririk zintzoena.

Ongi etorriak izan zaitezte zuen herrira!



**Ane Beitia Arriola**
Elgoibarko Alkatea
*Alcaldesa de Elgoibar*

# *¡Bienvenido/a a Elgoibar!*

*Los movimientos migratorios a lo largo de la historia han formado y enriquecido nuestro pueblo, y, hoy también, quienes venís a vivir a nuestro pueblo seguís enriqueciéndolo y conformándolo; no sólo porque impulsáis su desarrollo, sino también porque vuestra cultura, la lengua, las costumbres... enriquecen las de nuestro pueblo.*

*Nuestro pueblo es un pueblo de acogida, especialmente, gracias a las personas que vinieron desde la década de los 50 para responder a la necesidad de mano de obra de la época. Si durante algunos años esos flujos migratorios se estancaron de alguna manera, en las últimas décadas ha aumentado la cantidad de personas que vienen a nuestro país en busca de mejores oportunidades.*

*Sin embargo, el nuestro ha sido un pueblo migrante en otras épocas, y somos conscientes de que no es fácil abandonar el país de origen para instalarse en otro país, ya que son numerosos los factores que dificultan la vida.*

*Por eso, el Ayuntamiento de Elgoibar ha lanzado esta guía para ayudar a todas las personas recién llegadas a arraigaros aquí, a adaptaros a la situación que viviréis en vuestra nueva localidad, de la cual a partir de hoy también sois parte, es decir, elgoibarreses/as. Por eso, hemos creado esta guía que tenéis entre manos para ayudaros a acercaros y situaros en nuestro pueblo.*

*En ella contaréis con la información básica para las personas recién llegadas, especialmente sobre los servicios y recursos que ofrece el Ayuntamiento.*

*Espero que esta guía sea útil para ayudar a superar las dudas, temores y dificultades que en un primer momento conlleva venir a vivir a un nuevo lugar.*

*Ojalá este momento inicial se convierta en oportunidad y, de paso, aprovechar este proceso de conocimiento mutuo para crear relaciones, enriquecernos y compartir experiencias.*

*Para terminar, esperando que esta guía os sea útil, reciba mi más sincera bienvenida.*

*¡Recibid la bienvenida a vuestro pueblo!*



# Kokapena eta ezaugarriak

*Elgoibar Gipuzkoako mendebaldean dagoen udalerria da, Deba ibaiaren bokaletik 13 kilometrora, Bizkaiarekin mugan.*

*Elgoibar mendiz inguratuta dago, eta Deba ibaiak zeharkatzen du, eta Azkarate, Muneta, Peto, Kalamua eta beste hainbat menditatik datozen errekastoek bertan isurtzen dituzte urak.*

*Biztanleriari dagokionez, Elgoibar Gipuzkoako herririk jendetsuenetarikoa da. Elgoibarrek biztanle hazkunde handia izan du, batik bat industriak 1950. urtetik aurrera izan duen bilakaeraren ondorioz.*

*Elgoibar industria herria izan da betidanik, eta halaxe da oraindik ere. Antzina, gure herrian nekazaritza eta merkataritza nagusi izan baziren ere, denboraren joan-etorriarekin, industria, eta batez ere, makina-erremintaren ekoizpena gure herriko jarduera nagusi bilakatu da.*

*Elgoibar 1346. urtean sortu zen Alfonso XI.ak herriari eman zion hiri-gutunari esker, Villamayor de Marquina izenarekin.*

*Ordura arte, Elgoibar Markina de Yuso izeneko lurretan zegoen. 1472an aldiz, Errege Katolikoek herriari Elgoibar izena jartzeko baimena eman zuten; izan ere hiribildua eraiki zeneko lurrari, hau da, gaur egungo San Bartolome parrokiaren inguruari Elgoibar deitzen zitzaiolako.*

# *Ubicación y características*

*Elgoibar es un municipio situado al oeste de Gipuzkoa, a 13 kilómetros de la desembocadura del río Deba, en la frontera con Bizkaia.*

*Elgoibar está rodeado de montes, atravesado por el río Deba, en el que vierten sus aguas los arroyos que provienen de Azkarate, Muneta, Peto, Kalamua y otros montes.*

*En cuanto a la población, Elgoibar es una de las localidades más pobladas de Gipuzkoa. Elgoibar ha tenido un gran crecimiento de población, debido sobre todo a la evolución de la industria a partir del año 1950.*

*Elgoibar ha sido y sigue siendo un pueblo industrial. Si antiguamente en nuestro pueblo la agricultura y el comercio fueron las principales actividades, con el paso del tiempo, la industria, y sobre todo la producción de máquina herramienta, se ha convertido en la actividad principal.*

*Elgoibar se fundó en el año 1346, gracias a la carta puebla que Alfonso XI entregó al pueblo bajo el nombre de Villamayor de Marquina.*

*Hasta entonces, Elgoibar estaba en terrenos llamados Markina de Yuso. En 1472, por el contrario, los Reyes Católicos autorizaron la denominación Elgoibar, ya que se llamaba Elgoibar al terreno en el que se construyó la villa, es decir, al entorno de la parroquia actual de San Bartolomé.*



Urazandi
Deba
Maalako zubia
Gabriel Kurutzelaegi
Uparitzaga
Maalako parkea
N-634
Aizkorri
Santa Klara
Jausoro plaza
San Frantzisko
Ermuaranbide
Bernardo Ezenarro
Pedro Migel Urruzuno
Kalebarren plaza
Errosario
San Bartolome
Aita Agirre plaza
Artekale
San Roke
Errotaberri plaza
Txankakoako zubia
Kalegoen plaza
Giza Eskubideen parkea
Lekueder parkea
Trenbide
Arregitorre
San Ignazio
Bolatokiko parkea
Juan Mugertza
Santa Ana
Antonio Arrillaga
Ubitarte plaza
EuskoTren
Sigmako zubia
Erretsundi
Basarte

## Herritarren Arreta Zerbitzua / Erroldatzea
## *Servicio de Atención Ciudadana / Empadronamiento*




**Elgoibarko Udala**
*Ayuntamiento de Elgoibar*
Santa Ana kalea, 2
943 74 10 50
@ arreta@elgoibar.eus

Erroldatzea da norbera bizi den herrian izena ematea. Herrian bizi diren herritar guztiek eman behar dute izena udal erregistroan. Erroldatzean hainbat eskubide bermatzen zaizkie herritar guztiei: adingabeak eskolaratzea, osasun laguntza izatea, gizarte zerbitzuetatik eskaintzen diren baliabideak eskuratzeko aukera izatea eta abar.

*Empadronarse es inscribirse en el municipio donde se reside. Todas las personas residentes en el pueblo deben inscribirse en el registro municipal. La ciudadanía tiene garantizada distintos derechos: escolarización de menores, contar con asistencia social, oportunidad de acceder a recursos que se ofrecen desde los servicios sociales, etc.*

# Elgoibar

## Interesguneak
## *Puntos de interés*

1. **Herritarren Arreta Zerbitzua** – *Servicio de Atención Ciudadana*
2. **Osasun Etxea** – *Ambulatorio*
3. **Aita Agirre Kulturgunea** – *Centro Cultural Aita Agirre*
4. **Olaizaga polikiroldegia** – *Polideportivo Olaizaga*
5. **Gabriel Kurutzelaegi kalea** – *Calle Gabriel Kurutzelaegi*
6. **Elgoibarko Udala** – *Ayuntamiento de Elgoibar*



## Osasuna
## *Salud*

**Osasun Etxea** / *Ambulatorio*
Bernardo Ezenarro kalea 13
943 03 26 10

Astelehenetik ostiralera: 08:00-17:00. Aurretik zita eskatuz telefonoz edo osasun zentroko harreran hartuz.

*De lunes a viernes. 08:00-17:00. Solicitando cita previa por teléfono o en la recepción del centro de salud.*

Elgoibarren eta Euskal Autonomia Erkidegoan osasun zerbitzua eta asistentzia doakoa da, eta zerbitzua eskuratzeko txartel indibiduala lortu behar da. Udalean erroldatu ondoren osasun etxean eskatu behar duzu. Zerbitzuan izena eman ondoren, Elgoibarren osasun etxeko zerbitzua jasotzeko aukera izango duzu, eta bertan, medikuntza orokorra, erizaintza eta pediatria espezialitateak izango dituzu. Ordutegi honetatik kanpo, osasun larrialdirik baduzu osasun zentro hauetako batera jo beharko duzu.

*En Elgoibar y en la Comunidad Autónoma del País Vasco el servicio de salud y de asistencia es gratuito, y para acceder a dicho servicio se debe obtener la tarjeta sanitaria individual. Se solicita tras empadronarse en el Ayuntamiento. Tras inscribirte en el servicio, podrás disfrutar del servicio del centro de salud, donde encontrarás las especialidades de medicina general, enfermería y pediatría. Fuera de dicho horario, si tienes alguna urgencia sanitaria deberás acudir a alguno de los siguientes centros de salud.*

**Larrialdietarako telefonoa** / *Teléfono de urgencias*
112 edo 943 46 11 11
Larrialdi kasuetan baino ez da erabili behar, eta 24 orduko zerbitzua eskaintzen du, urteko 365 egunetan.) / *Sólo será utilizado en casos de urgencia, y ofrece servicio de 24 horas, durante los 365 días del año.*

**Mendaroko ospitalea**
*Hospital de Mendaro*
Mendarozabal auzoa, z.g
20850 **Mendaro**
943 03 26 10

**Etengabeko arreta guneak (EAG)**
*Puntos de atención continuada (PAC)*
Otaola hiribidea, 6-8
20600 **Eibar**, Gipuzkoa
943 44 90 00

## Etxebizitza
## *Vivienda*

Etxebide etxebizitzaren euskal zerbitzu publikoko prestazioak osatu eta babesten dituen sare publikoko erakundea da, eta bertara zuzendu behar duzu etxebizitzaren bat erosi edo alokatu nahi baduzu.

**Etxebide**
Andia kalea 13, 20003 San Sebastián
www.etxebide.eus

*Etxebide es la institución de la red pública que establece y apoya las prestaciones del servicio público vasco de vivienda, y deberás dirigirte allí si deseas comprar o alquilar una vivienda.*

**Aurrez aurre / *Atención presencial:***
Elgoibarko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ)
*Servicio de Atención Ciudadana (SAC)*
Zuzenean, Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Zerbitzuko leihatiletan:
*Directamente, taquillas del Servicio para la Ciudadanía del Gobierno Vasco:*
Andia kalea 13, 20003 Donostia.

**Posta bitartez / *Por correo:*** Gipuzkoa: Andia kalea 13 - 20003 Donostia

**Web:** www.etxebide.eus



## Enplegua
## *Empleo*

Lan edo enplegu bila bazabiltza, Lanbide Euskal Enplegu zerbitzuan eman behar duzu izena, eta bertan emango dizute dauden lan eskaintzen berri. Horrez gain, formazio aukera eta lan munduan sartzeko orientazioa ere eskainiko dizute.
Bestetik, herriak badu enplegu eta formakuntza aholkularitzarako beste zerbitzu bat. Bertan parte hartu nahi baduzu informazioa Zabaltzen Sartu kooperatibak Elgoibarren duen bulegoan lortu dezakezu.

**Lanbide Elgoibar**
Gabriel Kurutzelaegi kalea 8
945 16 06 00
milanbide.es

*Si estás buscando trabajo o empleo, debes inscribirte en Lanbide, Servicio Vasco de Empleo, donde te informarán de todas las ofertas de empleo existentes. También te ofrecerán información sobre las oportunidades de formación y orientación sobre acceso al mundo laboral.*
*Por otro lado, el municipio dispone de otro servicio de asesoramiento en empleo y formación. Si quieres participar, puedes obtener la información en la oficina que la cooperativa Zabaltzen Sartu tiene en Elgoibar.*

**Zabaltzen Sartu**
Arregitorre kalea, 6
943 74 85 97
yolandaur@zabaltzen.sartu.org



## Hezkuntza
*Educación*



Elgoibarren, haur, nerabe, gazte eta helduen ikaskuntza prozesuak ahalbidetzen dituen hezkuntza eskaintza zabala da:

*En Elgoibar existe una amplia oferta educativa que posibilita procesos de aprendizaje de niños/as, adolescentes, jóvenes y adultos/as:*

**Haurreskola** (0-2 urte/años)
Arregitorre kalea, 4
943-742141
elgoibar.elgoibar@haurreskolak.eus

**Herri Eskola** (3-12 urte/años)
Kalamua kalea, 8
943-899178
www.elgoibarlhi.hezkuntza.net
012777aa@hezkuntza.net

**Elgoibar Ikastola** (0-16 urte/años)
Ermuaranbide kalea, 7
943-744441
www.elgoibarikastola.eus
elgoibar@elgoibarikastola.eus

**IES Elgoibar BHI** (12-18 urte/años)
Arregitorre kalea, 2
943-899316
www.elgoibarbhi.hezkuntza..net
013431aa@hezkuntza.net

**CIFP Meka LHII** (16+ urte/años)
Arregitorre kalea, 2
943-748019
www.meka-elgoibar.hezkuntza.net
bulegoa@meka-elgoibar.eus

**Makina Erremintaren Institutua (IMH)** (16+ urte/años)
Azkue auzoa, 1
943-744132
www.imh.eus
imh@imh.eus

**Eibarko-Elgoibarko HHI**
(18+ urte/años)
Gabriel Kurutzelaegi, 12
943-028856
www.epaeibar.hezkuntza.net
epaeibar@yahoo.es

## Euskara ikasteko baliabideak
*Recursos para el aprendizaje de euskera*

@ euskara@elgoibar.eus

Euskara Elgoibarko berezko hizkuntza da, eta, hizkuntza hori ikasteak herrian bertakotzen lagunduko dizu. Hori dela eta, Udalak hainbat laguntza, zerbitzu eta baliabide eskaintzen dizkizu euskara ikasten laguntzeko, euskara ikasteak sortzen duen kostu ekonomikoa arinduz.

**Euskara ikasteko dirulaguntzak**

Hala, Udalak euskara ikastaroen matrikula erdia ordaintzen die guraso, ikasle, langabetu, pentsiodun eta jubilatuei. Horretaz gain, beka sistema ere badago, eta asistentzia %80tik gorakoa den kasuetan, ordaindutako matrikularen erdia berreskuratzen da.

*El euskera es una lengua propia de Elgoibar, y aprenderla te ayudará a integarte en el municipio. Por ello, el Ayuntamiento te ofrece una serie de ayudas, servicios y recursos para ayudarte a aprender euskera, mitigando el coste económico que genera su aprendizaje.*

***Subvenciones para aprender euskera***

*El Ayuntamiento abona la mitad de la matrícula de cursos de euskera a padres/madres, alumnos/as, desempleados/as, pensionistas y jubilados/as. Además, también existe un sistema de becas: si se supera el 80% de asistencia, se recupera la mitad de la matrícula pagada.*

**Euskara ikasteko euskaltegiak, 16 urtetik gorakoentzat:**
***Centros para el aprendizaje del euskera para personas mayores de 16 años:***

**Debabe Udal Euskaltegia**
Aita Agirre kulturgunea
Aita Agirre plaza 3, 3
943 74 27 31
udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

**AEK Euskaltegia**
Gabriel Kurutzelaegi kalea 10
607 60 14 23
elgoibar@aek.eus

**Euskara praktikatzeko egitasmoak / *Proyectos para la práctica del euskera:***

**Elgoibarko Udala - Euskara saila**
Aita Agirre kulturgunea
Aita Agirre plaza 3, 1
943 74 43 66
euskara@elgoibar.eus

**Elgoibarko Izarra Elkartea**
Aita Agirre kulturgunea
Aita Agirre plaza 3, 3
946 74 16 26
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

## Gizarte Zerbitzuak
*Servicios Sociales*

**Elgoibarko Udala**
Santa Ana kalea, 2
943 74 10 50
ongizatea@elgoibar.eus

Aurretik zita eskatu behar da HAZ bulegoan edo telefonoz.
*Solicitar cita previa en la oficina del SAC o por teléfono.*

Elgoibarko Gizarte Zerbitzuen sailaren helburua herritarren eta herriaren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea da. Aldi berean, beste zerbitzu batzuetara iristeko bidea zabaltzen da eta zubi lanak ere egiten ditu beste erakunde batzuetara iristeko.
Horrekin batera, edozein adineko herritarrek –haur, gazte nahiz heldu– dituzten eskubide eta baliabide sozialei buruzko informazioa ematen, balorazioak egiten eta orientatzen laguntzen du, eta zerbitzu eta prestazio sozialetara iristeko erraztasunak ematen ditu, beharrezkoa den kasuetan.

*El objetivo del departamento de Servicios Sociales de Elgoibar es mejorar el bienestar y la calidad de vida de la ciudadanía y del pueblo. Al mismo tiempo, abre la vía para acceder a otros servicios y también hace de puente para ponerse en contacto con otras instituciones.*
*Junto con ello, informa sobre los derechos y recursos sociales que tiene cualquier vecino o vecina de cualquier edad –infancia, juventud y personas adultas–, y colabora haciendo valoraciones y ofreciendo orientación, además de facilidades para acceder a las prestaciones sociales, en los caso que fuese necesario.*




## Berdintasun Saila
*Departamento de Igualdad*

**Aita Agirre kulturgunea**
Aita Agirre plaza 3, 1
943 74 10 50
berdintasuna@elgoibar.eus

Berdintasun Sailaren helburu nagusia jendarte eredu justuago eta parekideago bat eraikitzea da. Helburu hori lortzeko udaletik berdintasun politika publikoak diseinatu eta garatzen ditugu.
Herritarrengandik hurbil egonez eragin nahi dugu, jendarteko arlo guztietan emakume eta gizonen arteko ezberdintasun eta desoreka egoerak identifikatu eta zuzentzeko programa, plan eta proiektuak bultzatzen ditugu.
Horretarako topaleku bikaina bihurtu da Lila, Herriko Emakumeen Etxea, herritar guztientzat irekitako gunea.

*El objetivo principal del Departamento de Igualdad es construir un modelo de sociedad más equitativo. Para lograrlo, desde el ayuntamiento diseñamos y desarrollamos políticas públicas de igualdad.*
*Queremos incidir estando cerca de la ciudadanía, impulsamos programas, planes y proyectos para identificar y corregir situaciones de desigualdad entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la sociedad.*
*Para ello, Lila, la Casa de las Mujeres de Elgoibar, se ha convertido en un excelente punto de encuentro abierto a toda la ciudadanía.*

**Lila, Elgoibarko Emakumeen Etxea**
San Frantzisko 21, 2. pisua
943 74 10 50 (306)
berdintasuna@elgoibar.eus

# Kiroldegia
*Polideportivo*

Elgoibarko Udalak Olaizaga eta IMH kiroldegietan eta Mintxeta Udal Instalazioan Eskola Kirola, Kirol Federatua eta Denontzako Kirola garatzeko aukera eskaintzen du, adin guztiei zuzendutako ikastaro eta jarduera eskaintza zabalaren bitartez.
Instalazio horiek igerileku estaliak eta estali gabeak, kantxak, futbol zelaiak, gimnasioak, rokodromoa, saunak, atletismo, tenis eta padel pistak, pilotalekua eta abar dituzte.

**Ordutegiak, ikastaroak instalazioen alokairuak eta gainerako informazio guztia:**

**www.elgoibar.eus** **943 74 44 15**

*El Ayuntamiento de Elgoibar ofrece la posibilidad de desarrollar Deporte Escolar, Deporte Federado y Deporte General en los polideportivos Olaizola e IMH y en la Instalación Municipal Mintxeta, a través de una amplia oferta de cursos y actividades dirigidas a todas las edades.*
*Dichas instalaciones disponen de piscinas cubiertas y descubiertas, canchas, campos de fútbol, gimnasios, rocódromos, saunas, atletismo, pistas de tenis y pádel, frontón de pelota, etc.*

***Horarios, alquileres de instalaciones, cursos y demás información:***

**www.elgoibar.eus** **943 74 44 15**

## Udal kirol instalazioak
*Instalaciones deportivas municipales:*

### Olaizaga kiroldegia
*Polideportivo Olaizaga*
San Roke kalea 1
943 74 44 15
www.elgoibar.eus
olaizagaharrera@hotmail.es

### Mintxeta udal instalazioa
*Instalaciones municipales Mintxeta*
Azkue Auzoa z/g
943 74 73 56

### IMH kiroldegia
*Polideportivo IMH*
Azkue Auzoa 1







## Haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuak
## *Servicios para infancia, adolescencia y juventud*

**Aita Agirre kulturgunea**
Aita Agirre plaza 3, 1
943 74 10 50
gazteria@elgoibar.eus

*Helburua, herriko haur, nerabe eta gazteei, euren haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea da, berezko balioa duen bizi etapa gisa, eta heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen etapa gisa.*

*El objetivo es ofrecer una alternativa estable y duradera a los niños y niñas, adolescentes y jóvenes para desarrollarse y disfrutar en su infancia, adolescencia y juventud, como etapa vital que tiene un valor propio, y como etapa que ofrece la posibilidad de transitar a la madurez con éxito y plenamente.*

**Elgoibarko Ludoteka**
Gabriel Kurutzelaegi, 6
943 74 88 83
ludotekaelgoibar@gmail.com

**Ludoteka zerbitzua:**
5-12 urteko haurrentzako zerbitzua da, jolasa oinarri hartuta, haurren gozamena eta garapena ditu helburu.
Ordutegia:
Asteartetik ostegunera: 16:30-19:30.
Ostiralak eta larunbatak: 16:30-20:30.

*Servicio de ludoteca:*
*Es un servicio para niños y niñas de 5 a 12 años, que tiene como objetivo el disfrute y desarrollo de la infancia a partir del juego.*
*Horario:*
*De martes a jueves: 16:30 - 19:30 h.*
*Viernes y sábados: 16:30 - 20:30 h.*

**Elgoibarko Gaztelekua**
Gabriel Kurutzelaegi, 4
943 74 32 28
gaztelekua@elgoibar.org

**Gazteleku zerbitzua:**
13-17 urtekoentzako zerbitzua da, nerabeek nerabezaroaz gozatzea eta heldutasunera bidean laguntza eskaintzea ditu helburu.
*Ordutegia:*
*Asteazkenak, ostegunak eta igandeak: 17:00-20:00.*
*Ostiralak eta larunbatak: 17:00-21:00.*

*Servicio de gazteleku:*
*Es un servicio para personas de 13-17 años, cuyo objetivo es que los y las adolescentes disfruten de la adolescencia, ofreciéndoles ayuda en el camino a la madurez.*
*Horario:*
*Miércoles, jueves y domingos: 17:00 - 20:00 h.*
*Viernes y sábados: 17:00 - 21:00 h.*





## Kultura
*Cultura*



Elgoibarren kultura arloko ekintza ugari egiten dira, eta kulturarekin eta kirolarekin lotura duten herriko elkarte eta eragile guztiek laguntzen eta parte hartzen dute horretan. Urtean zehar, kultur eskaintza zabala dago herrian, eta, besteak beste, Udalaren webgunearen bitartez ematen da horren berri.

*En Elgoibar se realizan muchas actividades culturales, y todas las asociaciones y agentes del pueblo relacionadas con la cultura y el deporte colaboran y participan en ellas. Durante el año hay una amplia oferta cultural en el pueblo, que se difunde mediante la web del Ayuntamiento, entre otras.*

**Gotzon Garate Liburutegia**
*Biblioteca Gotzon Garate*
Aita Agirre plaza 3, 2
943 74 35 25
liburutegia@elgoibar.eus

**Inazio Bereziartua Musika Eskola**
*Escuela de Música Inazio Bereziartua*
Aita Agirre plaza 4
943 74 21 45
elgoibarmusika@elgoibarmusika.eus

**KZGUNEA**
Aita Agirre plaza 3, 2
943 02 36 40
tutor.elgoibar@kzgunea

**Gotzon Garate Udal Liburutegia:** Herritar guztientzat irekita dagoen zerbitzua da. Liburuak, aldizkariak, CDak eta DVDak kontsultatzeko eta mailegatzeko aukera eskaintzen du.
**Inazio Bereziartua Musika Eskola:** Musika Eskolan musika, dantza, instrumentuak eta talde instrumentu ezberdinak jotzen irakasten zaie haur eta helduei. Aisialdirako aukera ezin hobea da.
**KZ gunea:** Ikastaroen aukera zabala eskaintzen da: segurtasuna, enplegua bilatzea, sare sozialak, tresna ofimatikoak...

*Biblioteca municipal Gotzon Garate: Servicio abierto a toda la población. Ofrece la posibilidad de consultar y llevar en préstamo libros, revistas, CDs y DVDs.*
*Escuela de música Inazio Bereziartua: En la Escuela de Música se enseña a personas de todas las edades música, baile e instrumentos. También es una buena opción para el tiempo libre.*
*KZgunea: Se ofrece una amplia variedad de cursos: seguridad, búsqueda de empleo, redes sociales, herramientas ofimáticas...*



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

**Elgoibarko Udala**
Santa Ana kalea, 2
943 74 10 50
arreta@elgoibar.eus
www.elgoibar.eus